

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**369/2017 Foru Agindua, abenduaren 28koa, Eskuernaga udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren espedientea baldintzekin behin betiko onartzen duena**

#### I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Eskuernagako Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorra prestatzeko lanak hasia erabaki zuen, indarrean dauden arau subsidiarioak, martxoaren 8ko 176/1995 Foru Aginduaren bidez behin betiko onartu zirenak, berrikusteko eta udal planeamendua ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoaren, aginduetara egokitzeko. Gero, 2011ko urriaren 4an, erabaki zuen plan orokorra eta ingurumen eraginaren baterako azterlana egitea eta Eusko Jaurlaritzako eta Arabako Foru Aldundiko organo eskudunei eskatzea lege horren 90.1 artikuluan aipatzen diren txostenak. Halaber, eta ildo beretik, Eusko Jaurlaritzako eta Arabako Foru Aldundiko zenbait saili eta arloan eragina zeukaten beste erakunde batzuei txostenak eskatu zizkien.

Bigarrena. 2014ko azaroaren 4ko bileran, Eskuernagako Udalak erabaki zuen plan orokorraren aurrerapen agiria eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren hasierako agiria jendaurrean jartzea. Horretarako, iragarkiak argitaratu zituen 70. ALHAOn (2015ko ekainaren 12koan), Diario de Noticias de Álava egunkarian (2015eko ekainaren 3koan) eta udal webgunean.

Era berean, aurrerapenaren kopia bana jakinarazi eta bidali zitzaion udalerrir mugakideei.

Udaleko idazkariaren 2015eko abuztuaren 13ko ziurtagirian, adierazten da jendaurrean jartzeko aldi ez zela inolako iradokizunik aurkeztu, ezta aurrerapen agiriaren ordezkotabiderik ere. Zenbait administrazioetatik txostenak jaso ostean eta talde idazleak horri buruzko txostena prestatu ondoren, udalbatzak, 2015eko azaroaren 3an, planaren xedeak, irizpideak, helburuak eta irtenbide orokorrak onartzeko erabakia hartu zuen.

Hirugarrena. 2015eko abenduaren 22ko bileran, Eskuernagako Udalak erabaki zuen Hiri Antolamendurako Plan Orokorren agiria eta ingurumen iraunkortasuneko txostena (edo hasierako agiria) hasieran onartzea eta biei jendaurrean jartzeko izapidea ematea. Horretarako, iragarkiak argitaratu zituen 5. ALHAOn (2016ko urtarrilaren 15ekoan) eta El Correo egunkarian (2015eko abenduaren 30ekoan). Bilkura berean, erabaki zen lizentziak emateko prozedura gehienez bi urtez geldiaraztea proposaturiko aldatetarik indarrean zegoen hirigintza antolamendua aldatzea zekarren eremuetan.

Hori guztia jakinarazi zitzaion udalerrir mugakideetako udalei, hirigintzako eta arloko esku-menak zituzten herri administrazioei eta zenbait kolektibo soziali.

Laugarrena. Eskuernagako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra jarraitutako ingurumen ebaluazio estrategikoko prozedurari dagokionez, agiria urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, xedatutakoaren arabera izapidetu da; Ingurumen eta Iraunkortasun Zerbitzuaren aurretiko txosten bat edo erreferentziako agiri bat dago, 2012ko urtarrilaren 25ekoa, iraunkortasun printzipioari eta planaren baterako ebaluazioaren azterlanerako informazioa zehazteari buruzkoa (erreferentziako agiria 2013ko azaroaren 11n jaulki da).

Planen ingurumen eraginari buruzko legeria aldatu zenez, 2015eko apirilean hasierako agiria egin zen. Horren gainean, ingurumen administrazioak, urte bereko azaroaren 13an, irismen

agiria egin zuen. Gero, ingurumen azterlan estrategikoa egin zen eta, Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren urriaren 14ko 255/2016 Foru Aginduaren bidez, Eskuernagako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren ingurumen adierazpen estrategikoa egin zen (122. ALHAOn, azaroaren 2koan, argitaratu zen).

Halaber, espedientean beste dokumentu bat dago, 2017ko apirilekoa, "Eskuernagako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren ingurumen adierazpen estrategikoaren integrazioa" izenekoa.

Bosgarrena. Jendurrean jartzeko aldiaren, 6 alegazio aurkeztu ziren, eta talde idazleak 2016ko apirilaren 21ean egin zuen horiei buruzko txostena. Era berean, talde idazleak plana hasieran onartu ostean egindako kontsultei administrazioek emandako erantzunen gainean idatzitako txosten bat dago, baita beste txosten bat ere, udal zerbitzu teknikoek agirian jasotako egikaritze unitateen kopurua murrizteko egin zuten proposamenari buruzkoa.

Udalak, 2016ko maiatzaren 4ko eta 31ko eta abenduaren 20ko bilkuretan, horiek aztertu eta ebatzi zituen, alegazioak espedientean jasota dagoen moduan baietsi eta ezesteko, eta planeko dokumentazioan zeuden akats batzuk zuzendu zituen.

Seigarrena. 2016ko urriaren 17ko bilkuran, Eskuernagako Udalak, aho batez, erabaki zuen plan orokorraren agiria eta ingurumen iraunkortasunari buruzko memoria behin-behinean onartzea eta espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaltzea.

Zazpigarrena. Espedientea 2017ko apirilaren 20an iritsi zen Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordera; 3/2017 saioan, uztailaren 12koan, eman zen horren berri eta ezarri zen horri dagokionez emandako ziurtagirian jasotako baldintza lotesleak. Halaber, Etxebizitza Sailburuordetzak, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, URA Uraren Euskal Agentziak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak eta Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak egindako txostenak erantsi ziren.

Zortzigarrena. Eskuernagako Udalak, 2017ko uztailaren 19an, nahitaezko txostena eskatu zion Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioari, 9/2014 Lege Orokorrak, telekomunikazioenak, xedatutakoa betez, eta administrazio horrek aurtengo abuztuaren 8an eman zuen txostena.

Bederatzigarrena. Espedientea 2017ko abuztuaren 25ean jaso zen Ingurumen eta Hirigintza Sailean, eta dokumentazioa aztertu ondoren zenbait gabezia zeudela antzeman zen; udalari horien berri eman zitzaion, irailaren 18ko idazkiaren bitartez. Antzemandako gabezien zuzenketa, behin betiko onartzekoa, 2017ko urriaren 11n sartu zen Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean. Egun berean, sail honetan Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren txostena jaso zen; bertan, planak lurralde historikoko bide sarean duen eragina aztertzen da.

Hamargarrena. Era berean, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 155/99 Foru Dekretuan agindutakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak eman zuen espediente honi buruzko txostena, 6/2016 bilkuran, abenduaren 19koan.

## II. OINARRIAK

Lehenengoa. Jarraitutako prozedura.

Espedientean jasotakoaren arabera, plana prestatu eta izapidetzeko prozesuan bete egin dira hirigintza legerian zein arloko txostenak (udalerrri mugakideetako udalena, Sustapen Ministerioarena, Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioarena, Ebroko Konfederazio Hidrografikoarena, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarena, Nekazaritza Sailarena, Ingurumen Sailarena eta Ur Sailarena —URA—, Arabako Foru Aldundiko Errepide Sailarena, Kultura Sailarena eta Nekazaritza Sailarena, baita espedientea ingurumen ebaluazio estrategikoko prozeduran jartzeari dagokion ere) eskatzea agintzen duen araudi luzean xedatutako mugarri edo izapide guztiak.

Prozeduraren ikuspuntutik, hirigintza zein ingurumen izapidetzea, ekainaren 20ko 2/2006 Legeak, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak, 84. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakora egokitu dira, baita urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, xedatutakora ere, txosten honen aurrekarietan ageri den moduan.

Hirigintza araudian ezarri bezala planeamendu tresnek indarraldi mugagabea daukaten arren, horrek ez du esan nahi erabat aldaezinak direnik. Planak berrikusteko prozeduraren bitartez, administrazioek, ius variandi deritzona baliatuz, indarrean dauden planen edukia alda dezakete, zenbait printzipio eta izapide betez; horrek eragina izan dezake aurretik existitzen zen hirigintza antolamendutik eratorritako lursailen sailkapenean.

Bigarrena. Plana osatzen duen dokumentazioa.

Espedientea aztertu ondoren, baieztatu daiteke formalki osatuta dagoela, Euskadiko lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legearen 62. artikulua ezarritako gutxienezko dokumentuak ez ezik urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Lurzoruaren eta hiri birgaitzearen Legearen testu bateratua onartzen duena, aplikatetik eratorritako beste batzuk ere badituelako, baita arloko araudi aplikagarriak eskatutakoak ere, aurreko atalean aipatu den moduan.

Planaren eragin ekonomikoari dagokionez, bi agiri daude: 1) garapen eta egikaritze programa eta azterketa ekonomiko eta finantzarioa eta 2) ingurumen iraunkortasunari buruzko memoria. Bigarren agiri horren xedea da haztatzea hirigintza jarduketek zer-nolako eragina duten beharrezko azpiegiturak ezartzeak eta mantentzeak eta ondoriozko zerbitzuak emateak eragindako ogasun publikoetan. Horri buruz bakarrik adierazi behar da iraunkortasunari buruzko memorian esan beharko dela proposaturiko industria erabilerako lurzoru urbanizagarriko sektorea dela planaren erabilera produktiboetarako lurzoru nahikoa eta egokia izateari buruzko legezko eskakizuna betetzeko dena eta hori udalerrian dagoen sare produktiboan sartzen dela.

Hala ere, planaren ingurumen ebaluazioko prozedurari dagokionez, espedientean aurretiko txostena edo erreferentziako agiria, ingurumen adierazpen estrategikoa eta ingurumen adierazpen estrategikoa planean sartzeko agiria daude, baina ez dago ez hasierako agiri estrategikoa edo planaren zirriborroa, ez haren ingurumen azterlan estrategikoa. Bi agiri horiek existitzen dira eta aldundiaren ingurumen organoaren artxiboetan daude, baina ez dira hirigintza espedientean jaso. Beraz, alderdi hori konpondu beharko da Hiri Antolamendurako Plan Orokorra osatzen duen behin betiko dokumentazioan.

Hirugarrena. Behin-behinean onartzeko egintzan sartutako aldaketak.

Behin-behinean onartzeko egintza izapide egintza da. Hala ere, ez da soilik egintza formala, funtsezkoa baizik, zeren eta horretan jasotzen baita, HAPO bati buruzkoa denean, zer asmo duen udalak herritarren bizikidetasun esparru gisa udalerrirako hautatutako lurralde eredia dela eta.

Plana behin-behinean onartzeko egintzan (2016ko urriaren 17an egin zen), alegazioei buruzko txostenaren ondoriozko aldaketez gain, beste batzuk barne hartu ziren, alegia, UE-3 AIU VI.06 "Coronillas bizitegitarako area" eta UE-4 VI.07 "San Torcuato area" egikaritze unitateak kanpoan uztekoak; hain zuzen, horiek lehen hiri lurzoru finkatugabe gisa sailkatuta zeuden eta orain hiri lurzoru finkatutzat jotzen dira. Halaber, Ángel Fernandez Frías jaunak jendaurrean jartzeko aldian egin zuen alegazioa onartzea erabaki zen; horren bidez, eskatu zuen 1. poligonoko 13. lurzatia lurzoru urbanizaezin gisa sailkatu beharrean hiri lurzoru gisa sailkatzea. Planak proposaturiko lurzoruen sailkapenari eragiten dionez, geroago aztertuko dugu.

Dena den, aldaketa horiek guztiak ez dira funtsezkoak; beraz, udalak aukeratutako lurralde eredia ez da aldatzen eta, hortaz, ez da berriro jendaurrean jarri behar.

Laugarrena. Plana izapidetzean emandako txostenak.

Hirigintza plangintzako tresnei arloko txosten ugari eskatzen zaizkie; plana sustatu eta izapidetzen duenaz bestelako administrazio publikoek ematen dituzte eta udalerriko espazio fisikoaren gainean eskumenak antolatzeko modua eratzen dute.

Lurralde Antolamendurako Batzordearen ziurtagiriaz eta horri atxikitako txostenez gain, espedientearen gaineko txostenak eman dituzte Ebroko Konfederazio Hidrografikoak (EKH), Sustapen Ministerioak, Energia eta Agenda Digitaleko Ministerioak eta Arabako Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio Sailak, Kultura Sailak, Ur Zerbitzuak, Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak eta Mendi Zerbitzuak.

Eskuernagako HAPOri dagokionez, egokiak diren txostenak eskatu zaizkie eta lortu dira. Hortaz, baieztatu dezakegu agiria ukitutako arloko administrazio guztiei bidali zaiela eta eskaturiko izapideak bete direla, geroago horien edukiaz aipatuko dena gorabehera.

Irizpide orokor gisa eta ikuspuntu administratibotik, arloko txostenak lotesleak dira ezezko zentzuan, hau da, arloko txostena kontrakoa denean eta arloko legeria aplikatzearen ondoriozko kontuez hitz egiten duenean. Ondorioz, kontrakoa denean, horren arrazoiak azalduko dira, baita arloko legerian oinarrituta txostenean jasotako iritzia babesten duten legezko edo arauzko manualetan ere, baina ezin dira hirigintza antolamenduari berezko jarduerak gauzatzeko bidea izan.

Bosgarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak 3/2017 bilkuran, 2017ko uztailaren 12koan, egin zuen espedienteari buruzko txostena. Haren edukia aldekoa izan zen, oro har, lurralde antolamendua loteslea den zatian (2017ko uztailaren 12ko ziurtapenaren I. atala, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze Arloko Lurralde Planera egokitzeari buruzkoa barne), ohar formal batzuk izan ezik; azken horiek zuzendu beharko dira eta ez zaio batzordeari txosten berririk bidali beharko.

Hala ere, urei dagokienez (ziurtapenaren II. atala), URA Uraren Euskal Agentziaren txostena, 2017ko uztailaren 6koa, onartu da. Bertan, hau adierazten da, laburbilduz: a) AIU "Herrera" (hegoaldea) VI.09 eta "Viura" (ekialdea) VI.05 eremuei dagokien planaren edukiaren kontrako txostena eman da harik eta "eremu horietan proposatutako antolamenduek indarrean dagoen araudia betetzen dutela" egiaztatzen duen azterlan hidrauliko bat aurkeztu arte, b) gainerako eremuen aldeko txostena eman da, baldin eta Arabako Errioxako Ur Partzuergoaren ziurtapen bat badago, non etorkizuneko garapenek sortutako eskari berriei eusteko baliabide hidrauliko nahikoa dagoela egiaztatzen den, eta c) gogorarazi du ibilguen babes zonetan egiten diren obrek arloko organoaren aurretiko baimenak lortu behar dituztela.

EAE LABen erabakiaren ziurtapenarekin batera, URA Uraren Euskal Agentziak egindako txostena (IV. eranskina) eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak egindako txostena (V. eranskina), 2017ko uztailaren 6koa, erantsi dira.

Seigarrena. Planaren egiturazko hirigintza antolamendua.

Egiturazko antolamendua lurralde plangintzaren ondoriozko politikak eta zentzu zorrotzean udal politikak gauzatea dakarten funtsezko zehaztapenen edo elementuen multzoa da.

Ilde horretan, Eskuernagako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean hau aipatzen da: a) plan orokorrak hiri lurzoru finkatugabeen aurreikusitako jarduketan programazioa ezarri beharko du, b) sistema orokorren sareari dagokionez, jabari eta erabilera publikoko espazio libre eta berdeguneak grafikoki zehaztu beharko dira, haien proportzioa ez da biztanleko bost metro karratu baino gutxiagokoa izan, eta behar kolektiboez eraginkortasunez eta benetan gozatzeko egokiak diren ezaugarriak eduki beharko dituzte, c) ekipamendu komunitarioko sistema orokorrei dagokienez, lurzoru urbanizaezinean egokiro identifikatuko dira eta ekipamendu orokorraren arauketa bilduko da, bai grafikoki bai idatziz, iraunkortasun ekonomikoko azterlan barne, eta ur hornidurako azpiegitura seinalatuko da zerbitzu azpiegituraren sistema orokorraren barruan, d) lurzoru urbanizaezinen zonak eta kalifikazio orokorren dagokionez, nekazaritza eta abeltzaintzako azpizona eta balio estrategiko altuko landazabala arautu eta mugatu beharko dira, lurzati hartzaileen gutxieneko azalerak uztailaren 8ko 168/1997 Dekretuan adierazitakora egokituko da, J.2.7 zonaren kalifikazioan Nekazaritza eta Basozaintzako ALPre

ondoriozko mugaketaren eta dagoen errealitate fisikoaren arteko kontraesana konponduko da eta nekazaritza ustiategiaren eraikuntza erabilerak (1.3.1.21 artikulua) halako moduan arautu beharko dira non ustiategi profesionali ez ezik profesionalak ez direnei ere eragingo dieten, e) hiri lurzoru urbanizagarriaren sailkapenari dagokionez, 1-194 lurzatiari buruzko kontraesan formalak konponduko da, 4-181, 4-817 y 4-845 lurzatiak hiri lurzoru gisa sailkatuko dira, Herrera VI.08 industria arloaren mugaketatik kanpo utziko dira ibaiak eta haren eskuinaldeak okupatzen dituzten lursailak eta 1. poligonoko 13. lurzatia lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuko da eta f) erabilera bateragarriei dagokien hirigintza eraikigarritasuneko gehieneko ehunekoa antolamendu eremuaren erabilera bereizgarriaren berdina edo txikiagoa izango da.

Zazpigarrena. Hirigintza antolamendu xehatua eta haren gauzatzea.

Antolamendu xehatua plan honen zehaztapenen arabera ukitutako lurzoruaren metro karratu bakoitzari eman nahi zaizkion erabilerak zehaztean datza, eta, ildo horretan, Eskuernagako Plan Orokorra hau egin beharko du: a) esplizituki adieraztea hiri lurzoruaren kategorizazioa, urbanizazioak finkatuak eta finkatu gabekoak bereiziz, b) plan berezi baten bidez antolatzen ez diren hiri lurzoru finkatugabeak (UE-3.1 eta UE 3.2) xehetasunez antolatzea, aurrealdean dauden bideak barne, eta horien batez besteko eraikigarritasunak arearen batezbestekoaren ehuneko 5 gainditzen ez dutela egiaztatzea, c) integratutako jarduketetan tokiko sistemen sareko horniduretarako eta ekipamenduetarako xedatutako lursailak erreserbatzeko gutxienezko estandarrak betetzen direla justifikatzea, d) hiri lurzoru finkatuaren barruan justifikatzea 1-73 eta 1-723 zenbakien bitarteko lurzatiei egotzi ahal zaizkien urbanizazio obren kostuak ez direla jarduketa bakanduei eskatzen zaizkionak baino handiagoak, e) 1-721 lurzatia birkalifikatzea, hiri lurzoru finkatugabe gisa kalifikatuta dagoelako eta kategoria horretakoa izateko baldintzak betetzen ez dituelako eta f) 1-9, 1-729 eta 1-730 lurzatiak hiri lurzoru finkatugabe gisa kategorizatzeke justifikazioa ematea eta haien eremua berrantolatzea, lursailtako kota diferentziaren ondorioz.

Hirigintza egikaritzea lursailean planeamenduko xedapenak agerraraztea xede duten jarduketa eta prozedura publiko zein pribatuen multzoa da, partikularren eskubideak eta eginbeharrak zehazteko behar diren eragiketak, onuren eta zamen banaketa eta lagapen eta urbanizazio eginbeharren betetzea barne, bai hiri lurzorian, bai lurzoru urbanizagarrian. Eskuernagako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra aztertuta, gabezia hauek ikusi, eta zuzendu beharko dira: a) integratutako jarduketan bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterlanean, plan partzialari dagokiona AIU VI-08 sektorean sartu beharko da, b) AIU VI.01 sektorearen antolamendu xehatuaren baldintza bereziak grafikoki irudikatu beharko dira, 1-851 eta 1-852 lurzatiak barne, c) 1-750 lurzatiaren atzeko eta alboetako fatxaden perimetroko espazio publikoa eta 1-758 eta 1-755 zenbakien bitarteko lurzatiaren atzeko espazioa dagokien jarduketan sartzea eta azterlan ekonomiko eta finantzarioari eta iraunkortasun ekonomikoari buruzko memoriari gehitzea, d) jarduketa integratu bat mugatuko da, non arau subsidiarioen egikaritze unitatean eta 5-326 eta 5-331 lurzatiaren dauden lursailak barne hartuko diren, erkidegoak sortutako gainbalioetan parte har dezan eta sistema orokorren eta tokiko sistemen sareko hornidurei dagozkien estandarrak betetzeko helburuarekin, ezarritako eraikigarritasunaren arabera, eta haien antolamendu xehatua egoki den plan bereziaren bidez egingo da, e) azpizona baten hirigintza eraikigarritasuna ezin da erabilera bererako desberdina izan eraikinen babes mailaren arabera edo eraikinen kokapenari, formari edo lurzatiaren okupazioari buruzko baldintzen arabera, lotura bereziak saihesteko asmoz, eta f) udalerrri-mailan katalogoaren 4. atalean eraikinen sartzea justifikatzen duten kultura balioak adieraziko dira.

Zortzigarrena. Planaren agiri edukia.

Jadanik aipatu dugu plan orokorraren dokumentazioa, oro har, zuzena dela eta hirigintza legeriarekin bat datorrela. Hala ere, alderdi batzuk gehitu, argitu, aldatu edo kendu egin behar dira, bai araudiaren zatian bai dokumentazio grafikoari dagokienez; Lurralde Antolamenduaren Zerbitzuaren txosten teknikoan (hogeita bosgarren gogoeta) eta juridikoan (zazpigarren gogoeta) islatzen dira, horiek espedientean baitaude, eta prestatu beharreko bateratuan konpondu beharko dira.

Bederatzigarrena. Planari buruz emandako arloko txostenak.

Hiri antolamendurako plan orokorreari buruz arloko txosten ugari egiten dituzte hirigintzakoaz bestelako herri administrazioek, eta planean proposaturiko espazio fisikoaren antolamenduan haiek dituzten eskumenak gauzatzeko modua dira. Eskuernagako Plan Orokorren kasu zehatzean, baieztatu dezakegu araudi aplikagarriak eskatutakoa bete dela, baina egokia iruditzen zaigu ingurumenaren, errepideen eta hidraulikaren arloko administrazio eskudunek egindako txostenen inguruko gogoetaren bat egitea.

Lehenengoari dagokionez, 2016ko urriaren 14ko ingurumen adierazpen estrategikoan zehaztu zen, eta bakarrik adierazi behar dugu paisaia berezi eta bikainen eta igarobide ekologikoen sarearen gaineratutako baldintzek ukitutako eremuetako eraikuntza egintzak direla-eta egiten diren baimenetan aurretiko ingurumen txostena egin beharra ez dagoela ez ezarrita ez babes-tuta arloan aplikatu beharreko estatuko edo autonomiako legerian. Hortaz, eskakizun hori kendu behar da, legezkotasun printzipioa aplikatuz, berariaz debekatuta dagoelako Administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearen Legearen 1. eta 79. artikuluetan, Lurzoruari buruzko Legearen 206. artikuluari lotuta, txosten horiek eskatzea, hirigintza antolamenduak araututako egintzak kontrolatzeko araubidearekin bat ez datorren neurrian. Eta hori, nahiz eta udalak berak sartu betekizun hori bere araudian (araudiaren 1.6.1.6.6 artikulua ildo horretan zuzendu beharko da). Hala ere, horrek ez du eragozten udalak, paisaia babesteko kalifikazioa duten zonetan udal lizentzia egokia ematean, egiaztatzea proposaturiko eraikuntza lursailei emandako kalifikazioak babestutako balioekin bateragarria den eta baimendu ahal den.

Errepideak direla-eta, arlo eskudunaren jarrera 2017ko urriaren 11ko txostenean zehazten da (abenduarien 19ko Arabako Hirigintza Batzordearen barruan zati bat aldatu zen), alegia, antolamendutik kanpo geratuko dira 1. eta 3. argazkiez identifikatutako eraikinak eta bide segurtasunari lotutako arrazoiak direla medio eraitsiko dira. Hori planaren azterlan ekonomiko eta finantzarioan jasoko da, eta aldundian errepideei buruzko eskumena duen sailaren konpromisoa eta dagokion kalte ordaina ezarriko dira planaren indarraldian.

Administrazio hidraulikoaren txostenari dagokionez, esan dugun moduan, EAELABen osoko bilkuraren txostenean, joan den uztailaren 12koan, erabaki hau hartu zen, besteak beste: AIU "Herrera Hegoaldea" eta "Viura" eremuetan jasotako aldaketen aurkako txostena ematea, harik eta biei dagokienez "eremu horietan proposatutako antolamenduek indarrean dagoen araudia betetzen dutela" egiaztatzen duen azterlan hidrauliko bat aurkeztu arte, ukitutako lursailak ezin dituelako urak hartu.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar dugu urak hartu ahal dituen zonetako erabileren antolamendua funtsezko zeregina dela administrazioarentzat, uholdeen arriskuei aurrea hartzeko, pertsonen eta ondasunen segurtasuna ahal den heinean bermatzeko eta mota horretako arrisku naturalei lotutako ingurumenaren, kultura ondarearen eta jarduera ekonomikoaren gaineko ondorio negatiboak ahal den neurrian txikiagotzeko asmoz. Halaber, nabarmendu behar dugu urak hartu ahal dituen zonak urei buruzko legerian, lurzoruari eta lurralde antolamenduari buruzkoan eta babes zibilari buruzkoan zehazten direla eta horiek guztiak 903/2010 Errege Dekretuaren, uholde arriskuak ebaluatu eta kudeatzekoaren, bidez koordinatzen direla; horrek 2007/60 Zuzentarauaren, uholde arriskuak ebaluatu eta kudeatzeari buruzkoaren, transposizioa egiten du.

Euskadiko lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legeari dagokionez, 13. artikuluen 2. zenbakiko c) letran ezartzen da hiri lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuko direla uholdeak edo beste arrisku naturalak sortzen dituzten edo saihesten ez dituzten lursailak, horien hirigintza eraldaketa ez delako bidezkoa.

Horregatik, aztergai dugun Eskuernagako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren espedientearen jasotzen da 2011ko irailaren 14an udalak, beste administrazio batzuen artean, Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eta URA erakunde autonomoari eskatu ziela "dauden arriskuei buruzko" eta "eskari berriak betetzeko behar diren ur baliabideak egotearen gaineko lurzoruen harrera gaitasunari lotutako baldintzei eta jabari publikoaren babesari buruzko" txostena. Hala

ere, ez da frogatu arloko arduradunek kontsulta horiek beharrezko epean eta moduan atera zituztenik, ezta horiek Eskuernaga udalerriko uholde arriskuari buruzko ohartarazpena egin zutenik ere.

Gero, udalak, 2016ko martxoaren 19an, Konfederazioari Uraren Legearen 25.4 artikuluan xedatutako txostena eskatu zion eta, URAREN eta komisarioaren beraren txosten batzuk jaso ostean, 2016ko irailaren 16an beste txosten eskaera bat egin ondoren, Konfederazioko presidentek idatzia bidali zuen, 2017ko uztailaren 6koa.

Funtsezko kontuari arreta jarritz, uztailaren 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak, Uraren Legearen testu bateratua onartzen duenak, hau ezartzen du 11. artikuluan:

**“11. artikulua. Urak hartu ahal dituen zonak**

1. Lakuen, aintziren, urtegien, ibaien edo erreken ezohiko ur geraldietan urak hartu ahal dituen lursailek zeuzkaten kalifikazio juridikoa eta jabari titulartasuna gordeko dituzte.

2. Arroko erakundeek uraldiak buruzko datu eta azterlan eskuragarriak helaraziko dizkiete lursailaren antolamenduari eta hirigintzari buruzko eskumenak dituzten administrazioei, lurzoruaren planifikazioan eta, bereziki, urak hartu ahal dituen zonetan erabakitzen diren erabilera baimenetan kontuan har ditzaten.

3. Gobernuak, errege dekretu bidez, pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezkotzat jotzen dituen mugak ezarri ahalko ditu urak hartu ahal dituen zonen erabileran. Autonomia erkidegoetako gobernu kontseiluek, gainera, arauketa horien osagarri diren arauak ezarri ahalko dituzte.”

903/2010 Errege Dekretuak, uholde arriskuak ebaluatu eta kudeatzekoak, 3. artikuluko m letran, honela definitzen du urak hartu ahal duen zona: “500 urteko errepikatze denbora estatistikoa duten uraldietan urak izango lituzkeen maila teorikoen ondorioz urpean gera daitezkeen lursailak”. Halaber, ezartzen du uholde arrisku handiena duten zonak, uholde arrisku nabarmena izan dezaketen areak (ARPSI) deritzonak, identifikatu behar direla eta horietan arriskugarritasunari eta uholde arriskuari buruzko mapak egin behar direla.

903/2010 EDren arabera, uholde arriskua kudeatzeko planak onartu behar dira. Horietan, uholde arriskuaren kudeaketaren alderdi guztiak (PGRI) barne hartuko dira. Gainera, A eranskin bat gehituko da, non lurralde antolamenduko eta hirigintzako neurriak xedatzen diren; horiek arriskugarritasun agertoki guztietan urak hartu ahal duen zonan lurzoruaren erabileretarako planteatutako mugak, lursaila lurzoru urbanizaezintzat jotzeko irizpideak eta urak hartu ahal duen zonan kokaturiko eraikinei eskatu beharreko eraikuntza irizpideak jasoko dituzte.

Urtarrilaren 11ko 9/2008 EDk, Jabari publiko hidraulikoaren Araudia (ekainaren 9ko 903/2010 EDk, uholde arriskuak ebaluatu eta kudeatzekoak, 3. artikuluan xedatutakoari lotuta) aldatzen duenak, 9.2 eta 14. artikuluetan ezartzen duenaren arabera, lehentasunezko fluxu zona ezartzeko administrazio espediente bat egin behar da, eta arloko administrazioari dagokio hori onartzea, ez hirigintzakoari. Era berean, urak hartu ahal dituen zonen kartografia eta arriskugarritasunari eta uholde arriskuari buruzko mapak egin behar dira.

Bestalde, ekainaren 23ko 1/2006 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko urarenak, adierazten du (24. artikulua) uholde eta hondamendien aurkako prebentzio neurriak EAE osorako neurrien programa delakoan ezarriko direla. Agiri hori ez dago onartuta gaur egun.

Euskadin, ibai nagusien uholde arriskuen kartografia dago. Bertan, 2, 3, 5, 10, 25, 50, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uraldiak eragindako areak bereizten dira; horiek erreferentzia geografikoa izango dira erabilera eta babes araubide aplikagarria ezartzeko, uholde arrisku maila jakin baten arabera. Azterlan horiek EAEko ibai nagusiei eta haien ibaiadarrei dagozkie, Ebroko ardatza delakoari buruzkoan izan ezik; hain zuzen, horri Ebroko Konfederazio Hidrografikoak heldu dio azterlan zabalago batean, 2005. urtean, eta haren emaitza kartografikoak jendearen esku daude.

Urak hartu ahal dituen zonak babes zibilaren ikuspuntutik tratatzeari dagokionez, 2015ean Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeen Ziozko Larrialdiko Plan Berezia onartu zen, eta bertan ez da inola ere aipatzen Herrera ibaiak Eskuernagan duen uholde arriskua.

Bestalde, Eskuernagako Udalak Viura eta Herrera eremuetako hidrologia azterlanak egiteko beharrari buruzko eskakizuna analizatzeko, eskumenaren administrazio printzipiora jo behar dugu, alegia, arau batek aurretik mugatutako eremu materiala, non administrazio batek bere jarduera gauzatu ahal duen; noski, horri ezin zaio uko egin eta esleituta daukaten organoek gauzatuko dute.

Ildo horretan, hidrologia azterlanak egitea, Uraren Legearen 24. artikuluko c letraren arabera, administrazio hidraulikoaren eskumena da, eta, horrekin bat etorritik, "arroko erakundeek, ... gain, eskudantzia eta zeregin hauek edukiko dituzte: hidrologia azterlanak egitea eta uraldi buruzko informazioa ematea." Era berean, 10/2001 Legeak, Plan Hidrologiko Nazionalarenak, 28. artikuluko 2. puntuan zera ezartzen du: "administrazio eskudunek urak hartu ahal dituen zonak mugatuko dituzte, arroko erakundeek helarazi behar dizkieten azterlan eta datu eskuragarriak kontuan hartuz, Uraren Legearen 11.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Horretarako, erakunde horien laguntza tekniko izango dute eta, bereziki, ibai sarean gehieneko emariei buruzko informazioa edukiko dute; administrazio hidraulikoak eman beharko du azken hori". Ildo berean, 903/2010 EDren 4. artikulua hau adierazten du: "Ingurumenaren eta Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioak, Barne Arazoetako Ministerioak, autonomia erkidegoek eta toki administrazioek, nork bere eskumenen eremuan, uholde arriskuaren ebaluazioaren eta kudeaketaren sustapena eta garapen orokorra gain hartuko dituzte, arlo horretan administrazio arteko lankidetzaren sustatzaile jardunez".

Beraz, agerikoa dirudi ezen, administrazio hidraulikoak lursail batzuen inguruan alegatutako uholde arriskuak hirigintza administrazioa lotu ahal izateko helburuarekin, lurzoru urbanizaezin gisa sailka dezan, beraren azterlanek edo planek babestu behar dutela eta, lursail batzuk urak hartu ahal dituela uste badu, berariaz adierazi behar duela, ondorioz lursail horiek hirigintza eraldaketako prozesutik kanpo uzteko.

Ez URAREN txostenean ez EKHrenean ez da frogatzen Herrera ibaiaren uholde arriskua (bide batez esan behar da beste udalerrri batzuei eta bi autonomia erkidegori eragiten diela) egiaztatzen duten azterlanak edo planak daudenik, txostenak hizpide dituen eremuetan; halaber, ez dira identifikatu uholde arrisku nabarmena izan dezaketen areak (ARPSI), eta ez dago horri buruzko aipamenik ez Ministerioak Uholde Arriskua duten Zonen Kartografia Sistema Nazionalari gehitutako arriskugarritasunari eta uholde arriskuari buruzko mapetan, ez EAEko isurialde mediterraneoko ibaiak eta errekek antolatutako ALPn, ez Euskadiko Uholdeen Ziozko Larrialdiko Plan Berezian, ez Uraren Euskal Agentziaren webgunean dagoen kartografian. Horregatik, URA-EKHren txostena arestian aipatutako irizpide orokorretik aldentzen da; izan ere, txostena kontrakoa den kasuetan haren arrazoiak azalduko dira, baita txostenean jasotzen den iritzia arloko legeriaren arabera babesten duten legezko edo arauzko manuak ere. Bestalde, ingurumen adierazpen estrategikoak ere, espedienteko arrisku mapak eta jabari publiko hidraulikoa babesteko neurriak aztertzeako funtsezko tresnak, ez du ezer esaten lursail horien uholde arriskuaren inguruan.

Horregatik guztiagatik, argi dago hor aurreikusitako erabilerak hirigintza antolamendutik kanpo uzten saiatzea, lursail jakin batzuetan uholde arriskua dagoen aztertzeako arduraduna den administrazioak bere lana eginda eduki gabe, eskumen inbasiotzat jo daitekeela. Ikuspegi horretatik, EAELABek bere egiten duen eta EKHk bere txostenean azaldukoaz haraindi doan URAREN txostena, udalerrian uholde arriskua duten areak zehazteko "hirugarrenek" (prozeduran esku hartzen duten bi administrazioez bestelako pertsonak, ibaien eta erreken ALPren 2. eranskinean definituta) egin beharreko azterlan bat egiteko eskatzen baitu eta ez hirigintza legerian ez legeria hidraulikoan bermatzen ez baita, irizpide orokorretik aldentzen da; izan ere, arloko kontrako txostenek iritzi hori babesten duten legezko edo arauzko manuak adierazi



behar dituzte eta, beraz, hori gertatzen ez denean ondoriozta dezakegu Eskuernagako Udalak hirigintzan dituen eskumenak inbaditzen dituela.

URAK azaldutakoari dagokionez, "eremu horietan proposatutako antolamenduek indarrean dagoen araudia betetzen dutela" egiaztatzeari buruz, nabarmendu behar dugu hirigintza antolamendu zehaztuak (lurzoruaren erabilerak, eraikuntza, eraikin motak, intentsitatea, hornidurak, etab.) zehaztasun maila desberdina daukala, hiri lurzorua edo lurzoru urbanizagarria den: hiri lurzorian zehazki definitu behar da (plan berezi bati lotzen zaizkion salbuespenetan izan ezik) eta lurzoru urbanizagarrian, berriz, plan partzial baten bidez zehaztu behar da geroago. Hori dela eta, komenigarria da kontuan hartzea bi kasu daudela: batean, (Herrera Hegoaldea), garatzeko eta gauzatzeko, hirigintza araudiak berak eskatzen du geroago plan partzial bat egitea; eta bestean (Viura), foru agindu honetan ezarritakoa aplikatuz, antolamendua zehazteko plan berezi bat egin behar da. Ondorioz, Eskuernagako Plan Orokorra ez du "proposatutako antolamendurik" egiten, ez Herrera Hegoaldea eremuan ez Viura eremuan, URAK hutsegitez bere txostenetan adierazten duen moduan; aitzitik, dagokien antolamendua geroago egingo da, ingurumen ebaluazio egokia egin beharko zaie, eta hor, ziurrenik, Herrera ibaiarekiko mugakidetasuna berriro planteatu ahalko da.

Azaldutakoaren ondorioz, gure aburuz, Eskuernagako Udalak "Viura" eta "Herrera Hegoaldea" eremuei buruz egin duen hirigintza sailkapenak eta kalifikazioak legezko koordinazio mekanismoak bete dituzte eta hirigintza araudiarekin bat datoz. Hala ere, eremu horiek garatzeko eta gauzatzeko jarduketek uren arloko araudiaren eskakizunekin bat etorri behar dute, jabari publiko hidraulikoarekin mugakideak direlako.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Eskuernagako Udalaren Hiri Antolamendurako Plan Orokorra behin betiko onartzea, baldin eta testu bateratuan zehaztapan hauek barne hartzen badira:

1. A-3214 errepideko eskuinaldean dauden lursailak (4-181, 4-817 eta 4-845 lurzatiak) hiri lurzoru gisa sailkatzea.

2. 1. poligonoko 13. lurzatia lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzea eta udal administrazioak lurzoru urbanizaezinerako ezarritakoetako batera hobekien egokitzen diren lursailaren berezko balioen arabera kalifikatzea.

3. Paisaia berezi eta bikainen eta igarobide ekologikoen sarearen gaineratutako baldintzek ukitutako eremuetako eraikuntza egintzak direla-eta egiten diren baimenetan aurretiko ingurumen txostena egin beharra kentzea.

4. Jabari eta erabilera publikoko espazio libreen eta berdeguneen identifikazio grafiko zehatza eskatzea, sistema orokorren hornidura sarekoak izateko ezaugarri egokiekin.

5. Arloko administrazioen txostenen zati lotesleari dagozkionak, arestian azaldutako moduan; bide segurtasuneko arrazoiak direla medio antolamendutik kanpo utzitako eraikinei buruzko errepide txostenaren ondoriozkoei dagokienez, iraunkortasun ekonomikoko txostenean jaso beharko dira.

6. "Viura" hotelari dagokion lurzatia urbanizazioak finkatu gabeko hiri lurzoru gisa sailkatzea eta arau subsidiarioetako UE-2 eremuaren mugaketa birdoitzea, 5-326 eta 5-331 lurzatiak barne hartzeko, horrek guztiak plan berezi baten xede izango den area integratu bat eratu dezan.

Bigarrena. Planaren behin betiko onarpena eremu hauetan geldiaraztea:

- A-3214 errepideko eskuinaldean dauden lursailak (4-181, 4-817 eta 4-845 lurzatiak).
- UE-2 eremua osatzen duten lursailak, 5-326 eta 5-331 lurzatiakoak barne.

Hirugarrena. Aurreko puntuan aipatutako gabeziak konpontzeko, dokumentazioari jendaurrean jartzeko izapidea eman behar zaio.

Laugarrena. Espedientea ingurumen ebaluazioko prozeduran eskatutako agiriez osatu beharko da formalki, bigarren oinarrian azaldu den bezala, eta 21/2013 Legeak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, 26.2 artikuluko b) eta c) letretan adierazitakoak gehituko dira (laburpen bat, non gutxienez honako hauek barne hartuko diren: ingurumen alderdiak, jendaurrean jartzearen eta kontsultak egitearen emaitzak, ingurumen adierazpen estrategikoa eta prozesuan sortutako desadostasunak barne, eta jarraipen neurriak, hain zuzen plana behin betiko onartzeko ebazpenarekin batera argitaratzeko helburuarekin).

Bosgarrena. Beharrezkotzat jotzen da planaren testu bateratu edo amaierako agiri bat egin eta onartzea. Hori osatzeko, agindu honetan aipatutako akats formalak konponduko dira eta azaldutako aldaketak egingo dira. Gainera, jendaurrean jartzeko izapidea eman ostean, Arabako Foru Aldundiak onartu beharko du, hamar hilabeteko epean.

Seigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Zazpigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta horren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan; horretarako bi hilabeteko epea egongo da jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2017ko abenduaren 28a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua*  
*JOSEAN GALERA CARRILLO*